



Martxoaren 8an, **REAS Euskadik bat egingo du mugimendu feministaren nazioarteko deialdiarekin eta EMAKUMEOK PLANTO oihuarekin**, heteropatriarkatu kapitalistaren eta arrazistaren aurrean. Planto egingo diegu indarkeriari, berdintasun ezari, prekarietateari, sexu-eredu hegemonikoei, laneko sexu-bereizketari, kontsumo-ereduari, familia patriarkalari, ezagutzen hierarkiari, arrazakeriari, edertasun-kanonari eta zapalkuntza guztiei.

Borroka feministaren bidez orain arte lortutako eskubideak eta ekarpenak aldarrikatzen ditugu, talde neokontserbadoreek atzerapausoa emateko egindako saiakeren aurrean. Salatu egiten dugu dagoeneko gaituztutako gaiak agenda politikoan txertatzea ahalbidetzen duen permisibitatea, zeina matxismo militantearen azken bazterretan baino ez den defendatzen.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren mugimenduak, beste gizarte-mugimendu eta -eragile batzuekin batera, bizitza sistema sozioekonomikoaren erdigunean dagoela defendatzen du; zaintza-lanak bizitzari eusteko lehentasuna direla; ekoizpena pertsonen eta lurraldeen beharrezkoak asetzerara bideratu behar dela, ez kapitala pilatzera; natura bizitza dela eta ezinbestekoa, zaindu nahi dugun bizitzarako. Eta dei egiten du zaintza-lanetako menpekotasun- eta prekariedade-harremanak gaituzteko, baita pertsonen, kolektiboaren eta naturaren esplotazio- eta menderakuntza-ereduak gaituzteko ere.

Hori dela eta, REAS Euskadi osatzen duten **erakunde guztiak animatu** nahi ditugu, **bost ardatzetan oinarritutako greba hau modu aktiboan babes dezaten: pentsiodunak, ikasleak, zaintzaileak, enplegua eta kontsumoa**; era berean, animatu nahi ditugu hausnarketa, ekintza eta gauzatzea sustatzeko espazio kolektiboak sortzera; jardunaldi horretan jendeak parte har dezan laguntzera; lurraldean egingo diren deialdiei buruz informatzera; halaber, gure gizarte-oinarriko askotariko emakumeak animatzen ditugu Euskal Herriko mugimendu feministaren deialdi eta mobilizazioetan parte hartzera.

Ez, bizimodu prekarioei!

Askotariko bizimoduak, indarkeria matxistatik eta heteroarauetatik aske!

Arrazakeriarik eta gerrarik gabeko bizitzak!

Defendatu dezagun gure gorputza eta gure lurraldea, kolonialismoaren aurrean!

**M8 GREBA FEMINISTA – HETEROPATRIARKATU KAPITALISTARI PLANTO!**

M8  
GREBA  
FEMINISTA

HETEROPATRIARKATU  
KAPITALISTARI *Plantoi!*

## MOBILIZAZIOAK

### DONOSTIA

12:00h Boulevard

19:00h Túnel de Antiguu / Antiguoko tunela

### IRUÑEA

12:00h Plaza del Castillo / Gaztelu plaza

19:00h Cines Golem / Golem zinemak

### GASTEIZ

12:00h Plaza Nueva / Plaza Berria

19:00h C.C Iparralde / Iparralde G.E.

### BAIONA

12:00h Plaza del mercado / Merkatu plaza

19:00h Plaza de la República / Errepublikako plaza

### BILBO

12:00h Sagrado Corazón / Jesusen Bihotza

19:00h Sagrado Corazón / Jesusen Bihotza

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

Informazio gehiago: [grebafeminista.wordpress.com](http://grebafeminista.wordpress.com)